



NIK, IDOIA MENDIA CUEVAK, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILBURU ETA EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARI NAIZENEZ,

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2009ko azaroaren 17an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

ERABAKI-PROPOSAMENA, IX. LEGEGINTZALDIKO (2009-2013) LEGEGINTZA-EGUTEGIA ONARTZEARI BURUZKOA.

Legegintza-egutegia tresna bat da, plangintzaren printzipioa Jaurlaritzari legegintzan esku hartzeko dagokion eremuan gauzatu ahal izateko, izan ere egutegiaren bidez helburuak ezarri, lehentasunak mugatu eta araugintzarako bitartekoak zehazten dira.

Jaurlaritzak, agiri honen bidez, modu osoan eta gardenean erakutsi nahi ditu bere politika gauzatzeko legegintzako ekimena baliatzea eskatzen duten ekintzak. Agiria Legebiltzarrari bidaliko zaio, Jaurlaritzaren jardura honi jarraipena egin diezaion alde zuzeneko fasetik edo plangintza-fasetik bertatik. Bete egin nahi da, horrela, Jaurlaritzak honek kudeaketaren kontrol eta gardentasunerako bideak bultzatzeko hartu duen konpromisoa.

Plangintzako tresna hau agiri dinamikotzat hartu behar da: moldatu, egokitu eta hobetu egin behar da behar berriak sortu ahal gerta litezkeen aldaketei aurre egin nahi bazaie. Legegintzako ekimenak –arrazoituta betiere– egokitzeko, sartzeko edo baztertzeko moduan egituratuta dago, baldin eta legegintzaldian zehar sortzen diren gorabeherak hala eskatzen badute.

Laburbilduz, tresna honek legegintzako ekimen guztiak koordinatuta garatzea du xede, ekimenok beharrezkoak baitira Jaurlaritzak bere jardun-eremuetan ezarritako helburuak legegintzaldian zehar lortu ahal izateko.

Egutegia betetzeari dagokion jarraipena eta ebaluazioa egitea bat dator, bestalde, hasiera batean onartutako egutegiaren balioa legegintzaldi osora hedatzeko neurriarekin; hartara, Jaurlaritzak bera jakinaren gainean egongo da gai honetan hasieran hartu zituen konpromisoen bilakaera zertan den. Jarraipena aldian-aldian egiteak ez du eragotziko, ordea, egutegia, hala behar denetan, egokitzea.

Administrazio-jardura honen jarraipena, kontrola eta ebaluazioa dela bide, sistema bat ezarri nahi da, beraz, eremu honetan gorputz har dezan gobernatzaren printzipioen arabeko politika sustatzeko nahiak.

Horiek horrela, eta Lehendakariak proposatu ondoren eztabaidatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak hau



ERABAKI DU

“Lehenengoa.- 2009-2013 Legegintzaldiko legegintza-egutegia onartzea. Egutegia honela osatuta dago: I. Eranskina - Legegintzako Proiektuen zerrenda; II. Eranskina – Sail guztiek bete beharreko galde-sorta.

Bigarrena.- Eusko Legebiltzarrari, Jaurlaritzaren jardunaren jarraipena egin dezan, onartutako legegintza-egutegia bidaltzea.

Hirugarrena.- Jaurlaritzako sailek Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari txosten bat bidali beharko diote, sei hilean behin, legegintza-egutegian ezarritako konpromisoak bete diren edo, hala bada, aldatu diren azaltzeko; erraztu egingo da, horrela, egutegiaren jarraipena eta ebaluazioa.”

Horrela jasota gera dadin, eta bidezkoak diren ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2009ko azaroaren 24an.

I. ERANSKINAIX. LEGEGINTZALDIALEGEGINTZAKO PROIEKTUEN ZERRENDA

1. LEHENDAKARITZA	1. Euskadiko Udal Legea	<i>2010eko lehen seihilekoan.</i>
	2. Berdintasunaren aldeko Emakumeen Euskal Kontseiluaren Legea	<i>2010eko lehen seihilekoan.</i>
	3. Legea, zenbait lege aldatzen dituena, 2006ko abenduaren 12an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak barne-merkatuko zerbitzuei buruz emandako 2006/123/EE zuzentaraura egokitu daitezen	<i>2010eko lehen hiruhilekoan.</i>
2. HERRIZAINGO SAILA	4. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legea aldatzen duen Legea	<i>2010eko bigarren hiruhilekoan.</i>
	5. Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzen duen Legea	<i>2010eko hirugarren hiruhilekoan.</i>
	6. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundera buruzko Legea aldatzen duen Legea	<i>2011ko laugarren hiruhilekoan.</i>
	7. Larrialdien eta Meteorologiaren Euskal Agentzia eratzeko eta arautzeko Legea	<i>2010eko bigarren hiruhilekoan.</i>
	8. Genero indarkeriaren biktimei laguntza osoa emateko Legea	<i>2012ko lehen hiruhilekoan.</i>
	9. Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko Legea aldatzen duen Legea	<i>2012ko bigarren seihilekoan.</i>
3. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA	10. Bizitza osoko ikaskuntzari buruzko Legea	<i>2011ko lehen hiruhilekoan.</i>



4. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA	11. Baliabideak banatzeko eta Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko Metodologia, 2012-2016 eperakoa, onartzen duen Legea	<i>2011ko hiruhilekoan.</i>	<i>hirugarren</i>
	12. Euskal Estatistika Planaren (2010-2012) Legea	<i>2010eko lehen hiruhilekoan.</i>	
	13. Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Legea aldatzeko Legea	<i>2010eko hiruhilekoan.</i>	<i>laugarren</i>
	14. Aurrekontu Araubideari eta Kapital Partaidetza duten Erakundeen kontrolari buruzko Legea	<i>2010eko hiruhilekoan.</i>	<i>laugarren</i>
	15. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Legea	<i>2010eko bigarren seihilekoan.</i>	
	16. Lehiaren Euskal Agentziaren Legea	<i>2010eko lehen seihilekoan.</i>	
	17. Euskadiko Aurrezki Kutxen Legea	<i>2012ko bigarren seihilekoan.</i>	
	18. Finantzei buruzko Legea	<i>2010eko lehen seihilekoan.</i>	
	19. 1/2007 Legegintzako Dekretuaren aldaketa. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bategina onartzen du.	<i>2011ko lehen hiruhilekoan.</i>	



5. JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA	20. Jaurlaritzako kideen eta Euskal Administrazio Publikoetako goi kargudunen interes-gatazkak eta bateraezintasunen erregimena arautzeko Legea	<i>2011ko bigarren hiruhilekoan.</i>
	21. Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea	<i>2012ko hirugarren hiruhilekoan.</i>
	22. Euskal Autonomia Erkidegoko Publizitate eta Komunikazio Institutuzionalari buruzko Legea	<i>2010eko lehen hiruhilekoan.</i>

6. ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA	23. Euskadiko Etxebizitza Eskubidearen Legea	<i>2010eko laugarren hiruhilekoan.</i>
	24. Mugikortasun Jasangarriaren Legea	<i>2011ko hirugarren hiruhilekoan.</i>
	25. Trenbide Sektorearen Legea	<i>2011ko laugarren hiruhilekoan.</i>
	26. Kable bidezko Garraioaren Legea	<i>2011ko bigarren hiruhilekoan.</i>
	27. Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen Legea	<i>2011ko hirugarren hiruhilekoan.</i>

7. INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA	*Industriari buruzko Legearen eta Turismoa Antolatzeko Legearen aldaketa, zerbitzuei buruzko zuzentarauak eragindakoa, sartuta dago 4. zenbakian adierazi den orotarako Legean.	
---	---	--



8. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA	28. Enpleguari buruzko Euskal Legea	<i>2011ko bigarren seihilekoan.</i>
	29. Partaidetza Instituzionalari buruzko Legea	<i>2011ko hirugarren hiruhilekoan.</i>
	30. Euskadiko Kooperatiben Legea	<i>2010eko bigarren seihilekoan.</i>
	31. Etorकिनak Hartzeko eta Integrazteko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Legea	<i>2011ko bigarren seihilekoan.</i>
	32. Transexualitateari buruzko Lege integrala	<i>2011ko laugarren hiruhilekoan.</i>
	33. Droga-mendetasunaren inguruko prebentzioari, asistentziari eta gizarteratzeari buruzko 18/1998 Legearen aldaketa, tabakoaren kontsumoari dagokionez	<i>2010eko lehen seihilekoan.</i>
	34. Droga-mendetasunei buruzko Lege Integrala	<i>2011ko laugarren hiruhilekoan.</i>
35. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen aldaketa	<i>2009ko laugarren hiruhilekoan.</i>	

9. OSASUN ETA KONTSUMO SAILA	36. Farmazia Sorospena Antolatzeko Legea	<i>2011ko lehen hiruhilekoan.</i>
	37. Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Publikoari buruzko Legea	<i>2011ko bigarren seihilekoan.</i>



10. INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA	38. Klima-aldaketa arintzeari eta hartara egokitzeari buruzko Legea	<i>2011ko lehen hiruhilekoan.</i>
	39. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorraren aldaketa	<i>2010eko laugarren hiruhilekoan.</i>
	40. Paisaia Antolatzeko Legea	<i>2010eko laugarren hiruhilekoan.</i>
	41. Nekazaritza eta Elikagaigintzako Politikari buruzko Legearen aldaketa.	<i>2010eko lehen seihilekoan.</i>
	42. Ehizari buruzko Legea	<i>2010eko lehen seihilekoan.</i>
	43. Animaliak Babesteko Legearen aldaketa	<i>2011ko lehen seihilekoan.</i>

11. KULTURA SAILA	44. Artxibo, Dokumentu eta Ondare Dokumentalaren Legea	<i>2010eko bigarren hiruhilekoan.</i>
	45. Sailkatutako Kultura Ondasunaren Deklarazioaren Legea	<i>2010eko laugarren hiruhilekoan.</i>
	46. Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen aldaketa	<i>2012ko bigarren seihilekoan.</i>
	47. Gazteriari buruzko Euskal Legea	<i>2010eko laugarren hiruhilekoan.</i>
	48. Euskadiko Dopajearen aurkako Legea	<i>2010eko laugarren hiruhilekoan.</i>

**EXCMA. SRA.:****ANDRE HORI:**

Adjunto tengo el honor de remitir a VE el Anexo II –Documento de fichas informativas- del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno en su Sesión celebrada el día 17 de noviembre, por el que se aprueba el "Calendario Legislativo para la Legislatura 2009-2013"

Honekin batera bidaltzen dizut Jaurlaritzaren Kontseiluak azaroaren 17an egindako bilkuran 2009-2013 Legegintzaldiko legegintza-egutegia onartzeko hartu zuen Erabakiaren II. Eranskina (Sail guztiek bete beharreko galde-sorta).

Lo que traslado a VE con el ruego de que lo adjunte a la documentación remitida ayer a esa Cámara. (Certificación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno y Anexo I al mismo)


Arren, erants iezaiezu agiri hori atzo ganbera horretara bidalitako gainerakoei (Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakiaren Ziurtagiria eta I. Eranskina).

Atentamente.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de noviembre de 2009.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 27a.

EL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO
Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO/
JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA
LEGE BILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIA


FDO. IZP.: JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

EXCMA. SRA. PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO.
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA



II. ERANSKINA

IX. LEGEGINTZALDIKO LEGEGINTZA-EGUTEGIA (2009-2013)

SAIL GUZTIEK BETE BEHARREKO GALDERA-SORTA

1. LEHENDAKARITZA

1.- Euskadiko Udal Legearen Proiektua.

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Aurrera egitea Euskal Autonomia Erkidegoaren barne-artikulazioan; horretarako, erakunde-sistema malgua, parte-hartzailea eta deszentralizatu eratu da, erakunde-maila desberdinen arteko subdiarioritasunean, eraginkortasunean eta elkarlanean oinarritutakoa.

Oreka ziurtatzea toki-erakundeei izendatutako eskumenen eta eskumen horiek kudeatzeko behar dituzten finantza-baliabideen artean.

Euskadiren barne-egituraketa eta barne-kohesioa lortzea, eta horrek etorkizunean garapena izango duela bermatzea.

Euskal erakundeen egungo sarea hobetzea, moldatzea eta egokitzea, eta, horretarako, udal-erakundeen maila gainerako bien artean modu koordinatuan eta armonikoan txertatzea.

a.2) Beste helburu batzuk:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legean araututako toki-araubidearen oinarriak garatzea, toki-erakundeen arloari bere osoan erantzunda.
- Toki Administrazioa osatzen duten erakundeen eskumen-araubidea arautzea, eta, orobat, horien finantzaketa-sistema, finantza-nahikotasunaren printzipioarekin bat.
- Araubide juridikoa arautzea, EAEko Toki Administrazioa osatzen duten orotariko erakundeen ezaugarriari erantzunda.

a.3) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Toki Administrazioa
- Eudel (Euskadiko Udalen Elkarte)
- Herritarrak, oro har.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Azterketa-fasean zehaztuko da.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko lehen seihilekoan.



2.- Berdintasunaren aldeko Emakumeen Euskal Kontseiluaren Lege Proiektua

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Erakunde baten sorrera bultzatzea, batetik, gizarte-, ekonomia- eta kultura-politikak garatzerakoan emakumeek eta elkarteen mugimenduak modu eraginkorrean parte hartzeko bidea izan dezaten, eta, bestetik, euskal administrazio publikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aintzat hartu beharreko solaskidea izan dezaten, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.5 artikuluan ezarritakoa betez.

a.2) Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Emakumeen elkarteak edo elkarteok osatutako federazioak.
- Izaera mistoa duten elkarteetako emakumeen atalak edo berdintasunerako arloak.
- Foru-administrazioen edo udal-administrazioen mendeko edo haiei lotutako erakundeak edo kide anitzeko organo aholku-emaileak, gizartearen parte hartzea eta emakumeen interesak ordezkatzeko xede dutenak.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

510.000.- euro.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko lehen seihilekoan.



3.-Lege Proiektua, zenbait lege aldatzen dituen, 2006ko abenduaren 12an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak barne-merkatuko zerbitzuei buruz emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitu daitezen

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoaren legegintzako eskumenaren lege-xedapenetan 2006/123/EE Zuzentaruaren manuak sartzea; hartara ezabatu egingo dira jarduera bati ekiteko edo hartan aritzeko neurritz gaineko eta arrazoirik gabeko eragozpenak, eta areagotu egingo da administrazio-jardunaren gardentasuna eta sinplifikazioa.

a.2) Beste helburu batzuk:

- Eusko Legebiltzarreko legerian zehaztea 2006/123/EE Zuzentaruak araututako zerbitzu-jarduera bati ekiteko edo hartan aritzeko prozedurek eta tramiteek -betiere zuzentaruaren parametroen barruan- izango duten araubidea.
- Pertsonak eta enpresek beren jardueratan aritzeko dituzten administrazio-zamak arintzea (hasiera batean, titulazioa duten lanbideen jardunari, lanbide-elkargoei, lanbide-kontseiluei, industriari, fundazioei edo turismoari dagokion legerian esku hartzea eskatzen da).
- Lehiakortasuna eta efizientzia hobetzea.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Eusko Legebiltzarreko lege bidez araututako jardueretan, 2006/123/EE Zuzentaruatik kanpo ez dauden arloetan, diharduten enpresak eta profesionalak.
- Diharduten lanbide-elkargoak.
- Herritarrak, oro har.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez da uste zuzeneko finantza-eraginik izango duenik. Inplikaturako jarduerari ekiteko edo horietan aritzeko administrazio-sinplifikazioak ez du baztertzen egiaztatze eta jarraipena egiteko administrazio-egituren beharra.

Zuzentaruak aplikatzeak eragin ekonomikoa izango duela aurreikusten da, barne-produktu gordinaren hazkunde gehigarria eta lanpostuen sorrera ekar bailitzake.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko lehen hiruhilekoan.



2. HERRIZAINGO SAILA

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legea aldatzen duen Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Poliziaren Legea aldatzea. Horretarako egokiak diren hobekuntzak eta egokitzapenak sartuko dira polizia-arauetan eta estatutu-erregimenean. Ertzaintzari dagokionez, erretiro aurreratuari eta adinagatik bigarren jarduerari buruzko alderdian bereziki izango du eragina, indarreko legeak berak agindutako eskakizunetik datorrena.

Era berean, beharrezko Segurtasun Administrazioako alderdiei helduko zaie sistema dinamikoa osoa osatzeko. Horrek bidea irekiko du segurtasun-publikoa eraginkortasunez kudeatzeko, hain zuzen ere helburu nagusi bera duten zeharkako politiken bidez.

Bestalde, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia prestakuntza- eta ikerketa-zentro bihurtu nahi da, segurtasunaren eremuan kualifikazio eta eskumen profesionalak eskuratzeko, izan ere segurtasun-sistema osatzen duten talde guztiei hautatze, prestakuntza eta karrerako politikak bermatuko baitizkie, baita eremu horretan dabilzan talde guztien gaitasuna eta kualifikazioa ere.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Udaltzaingoko eskalak eta kategoriak sailkatzeko taldeak berriro sailkatzea, gure inguruko eskakizunekin baita karrera profesionalean duen eraginarekin ere bateratuago.
- Polizia-kidegoen arteko mugikortasuna.
- Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioak trukatzeko.
- Kategoria bakoitzean sartzeko gehienezko adina.
- Hautatzeko prozedura komuna
- Udaltzainek udalerritik kanpo jardutea tokiko agintariak babesteko lanetan.
- Tokiko entitateak elkartzeko baimena izateko eskakizunak, polizia-zerbitzua emateko.
- Udaltzaingoa sortzeko gutxieneko eskakizunak.
- Udaltzaingoetako agoazil, mugikortasun agente eta bitarteko funtzionarioen edo antzekoen figura.
- Udaltzaingoen Erregistroa arautzea



- Datuak lantzeko zentroa egokituko da Datuak babesteko Lege Organikoaren eskakizun berrietara.
- Herritarrek segurtasuneko politketan parte hartzeko kontseilua sortzea.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Ertzaintza
- Udaltzaingoa
- Eusko Jaurlaritza, udalak eta Erakunde Publikoak
- Zentral sindikalak
- Herritarrak oro har.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Aurreikusitako aldaketa gehienek ez dakarte finantza-eragin zuzenik. Udaltzaingoko zerbitzuak elkartzeari dagokionez, eragina, izatekotan, onuragarria izango da.

Udaltzaingoko eskalak eta kategoriak berriro sailkatuz gero, gastua handitu egingo da -300.000 euroko kostua izango du gutxi gorabehera- eta 90 udaltzain eta udal-agenterentzako onuragarria izango da.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko bigarren seihilekoa.



5.- Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzen duen Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Larrialdiak kudeatzeko Legea zati batean aldatzea, azken urteetan pilatutako esperientziarekin lotutako hobekuntzak eta egokitzapenak sartzeko.

Hortik dator hauek egokiago arautzeko beharra: auto-babeseko eskubideak eta beharrak, betebeharrak horiek betetzea suspertzeko mekanismoak eta, hala bada, dauden arriskuak handitzen dituzten pertsonak edo enpresek arrisku horiek dakarten karga publikoa ordaintzea. Aldaketek legearen zehapen-araudian aurreikusitako egoeretan eragingo dute: hain zuzen ere zehapenak ezarri auto-babeseko beharrak ez betetzeagatik edo asmo txarreko alarmengatik, etab.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Larrialdiei aurre egitearen eta Babes Zibilaren eremuan jarduten duten zerbitzu, baliabide eta bitarteko guztiak antolatzeko, eraginkor izateko eta koordinatzeko alderdiak arautzea, baita Metereologia eta Klimatologia zerbitzuekin lotzea eta, ahal bada, sartzea Larrialdiei Aurre Egiteko, Babes Zibileko, Metereologiako eta Klimatologiako Euskal Agentziaren bidez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen erakunde autonomiadunetako kidegoak eta eskalak antolatu dituen otsailaren 25eko 1/2004 Legea aldatzea, "babes zibil eta larrialdietako" eskala sortze aldera.
- Larrialdietako operazioak koordinatzen dituzten larrialdiei aurre egiteko eta babes zibileko langileei agintari publikoaren maila ematea.
- Suhiltzaileen kidego bateratuetako langileen prestakuntza-eskakizunak arautzea. Sarbidea arautzea. Prestakuntza-baldintzak, eskalak,...
- Babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko adierazgarriak eta aitorenak.
- Babes zibileko karga sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen gaineko zerga modura, baldin eta ondasun horiek babes zibileko planak piztea ekarri dezaketen jardueretatik hurbil badaude. Karga horren helburua izango da aurreikusteko, prebenitzeko, planifikatzeko, prestakuntza emateko eta informazioa eskuratzeko jarduerak babes zibilaren arloan finantzatzea.
- Babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteari lotutako zerbitzuengatik, tasak sortzea. Bereziki, tasa bat sortzea, larrialdi edo istripu baten ondorioz, zailtasunak dituzten pertsonak bilatzeko, salbatzeko eta erreskatatzeko zerbitzuengatik.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Enpresak
- Sektoreko profesionalak



- Herritarrak
- Suhiltzaileen kidegoak
- Babes zibileko boluntarioak
- Funtzionarioak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

- Finantza-eragina mugatua izango du, egungo Babes Zibileko eta Larrialdietako Zuzendaritzak dituen bitartekoak, baliabideak eta zerbitzuak berrantolatzea baitakar.
- Finantza-eragina izan dezake, babes zibileko kargak eta tasek sor ditzaketan diru-sarreretatik etor daitekeena.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko hirugarren hiruhilekoan.



6.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legea aldatzen duen Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Beharrezko hobekuntzak eta egokitzapenak sartuko dira, batez ere lege hauek ekarritako aldaketengatik: Hauteskunderi buruzko Estatuko oinarrizko legeria, alderdi politikoen legea, alderdi politikoen finantzaketarena, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia eta Hauteskunde Administrazioaren gomendioak.

a.2.) Beste helburu batzuk:

Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko Legea hobetzea, ikuspuntu tekniko, juridiko eta terminologikotik. Horretarako, artikuluen hainbat alderdi zuzenduko dira, hala nola, bozketa elektronikoaren egungo araudia, aipatu legearen testua generoaren hizkuntzara egokitzea, euroa bezalako gaietan indarrean dauden terminoak erabiltzea eta abar.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Alderdi politikoak
- Herritarrak, oro har.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Hauteskunde autonomikoetan, ikusmen urritasuna dutenek eta atzerrian aldi baterako dauden hautesleek bozkatzeko behar dituzten inprimaki ofizialak egin, balioztatu eta banatzetik etorritako finantza-eragina badago. Era berean, finantzaketa beharrezkoa da bozketa eta boto-kontakteta elektronikoaren sistemen froga pilotua edo erakustaldiak burutzeko, hala badagokio; eragin ekonomiko horretatik 60.000 eta 150.000 euro bitarteko kopurua eman daiteke, kontuan hartuz proba hori egiteko zein boto elektroniko eta zenbat hauteskunde-mahai erabili diren.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko laugarren hiruhilekoan.



7.- Larrialdien eta Meteorologiaren Euskal Agentzia eratzeko eta arautzeko Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Legegintzako ekimen honen helburua da larrialdiei aurre egiteko eta babes zibileko sistemaren antolaketa berria arautzea, EAEko meteorologia eta klimatologiakoarekin bat egingo duena. Ia bi hamarkada darama funtzionatzen, gure erkidegoak gai horretan dituen eskumen eskusiboen bidez.

Arriskuaren gizartea izenekoa agertzeak, arriskuen pertzepzioa orojakilea den horretan, prebentzio, babeseko eta erantzuna planifikatzeko politikak ezartzeko beharra handiagotzen da, ez bakarrik hondamendi larrialdietan; larrialdi arruntetan ere egunero-egunero esku hartzen du eta bere ahaleginak gero eta gehiago biltzen ditu prebentzioko eta alertako jardueretan eta jarduera aringarrietan.

Horri dagokionez, gero eta nabarmenagoa da meteorologiari eta klimatologiari buruzko informazioa, prebentzioaren eta planifikazioaren laguntza-tresna gisa. Orobat, ikuspegi berri horretatik, gizarteari emango zaion informazioa aberastuko da.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Larrialdiei aurre egiteko, babes zibileko eta meteorologia eta klimatologiako gaietan kalitateko zerbitzu publikoa emango dela ziurtatzea.
- Larrialdien eta Meteorologiaren Euskal Agentzia sortzea, berezko nortasun juridikoa duen erakunde-administrazio gisa.
- Administrazio-arintasun eta eraginkortasun handiagoa eta erantzun nahikoa ematea, eta, horretarako, zuzendaritza eta ekintzen neurriak sendotuko dira, bai eta koordinatzeak direnak ere, profesionaltasun, espezializazio tekniko eta koordinazio operatiboen oinarritzko aurrekontuen menpe dauden gizarte-beharretara eta arriskuen bilakaerara egokitzeko gai da eta.
- Gainera, bere izaera, araubide juridikoa, helburuak, jarduteko eremua, eginkizunak, organoak, langileen erregimena eta abar arautzea.
- Egungo Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzaren eta Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritzaren integrazioa arautzea.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Enpresa pribatuak
- Sektoreko profesionalak
- Herritarrak



- Suhiltzaileen kidegoak
- Babes zibileko boluntarioak
- Funtzionarioak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Zerbitzu-maila bererako, Administrazioarentzat ez du inolako finantza-eraginik izango.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko bigarren hiruhilekoan.



8.- Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntza osoa emateko Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Lege-esparru osoa ezartzea genero indarkeriaren biktimentzat. Horrek Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Legea aldatzea dakar; hartara, argitu eta zabaldu egingo da botere publikoek arlo honetan duten perspektiba eta jardun-eremua, eta sartuta geldituko da emakumeen aurkako indarkeria mota oro.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Emakumezkoen aurkako indarkeria edo etxeko eta sexu-erasoen indarkeriaren biktimen kontzeptuaren ordez indarkeriaren kontzeptua sartuko da, arautu beharreko eremua kontzeptualki handitzeko.
- Genero-indarkeriari antzemateko eragitea, horretarako bitartekoak eta prozedurak aurreikusiz.
- Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko eta babesteko jardueren politikak berriro definitzea. Abiapuntua izango litzateke araudia berrestea, ez bakarrik administrazio-jardueren ildoak, genero-indarkeria mota guztietako biktimentzat benetako eskubide subjektiboak direnak baizik, eta indarrean dagoena bezalakoa izan gabe, alegia, bakarrik etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimentzat.
- Ildo horretatik, legeak definituko du genero-indarkeriaren egoeretan dauden emakumezkoen eskubideen zerrenda, hain zuzen ere, prebentzioa, arreta, laguntza, babesa, suspertzea eta ordain osoa izan dezaten.
- Prestazioak jasotzeko eskatutako eskakizunak berrikusi beharko dira, pilatutako esperientziaren arabera. Edo prestazio-zuzentzaile eta laguntza-prestazio berriak sortu.
- Era berean, genero-indarkeriaren biktimen eskubideak defendatzeko administrazioen zenbait jarduerari legezko babesa ematea, esaterako arrazoi horregatik zigor-prozeduretan bertaratzea, beste autonomia erkidego batzuetan gertatzen den bezala.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumezkoen laguntzeko eta haien suspertze osorako sarea hobetu eta berriro antolatu beharko litzateke.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Indarkeria mota horren biktimak diren emakumeak
- Emakumeen elkarteak
- Herritarrak, oro har

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):



Arauk jasotzen dituen eskubideak eta prestazioak ezartzetik datorren finantza-eragina; azterketa-fasean zehaztuko da.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2012ko lehen hiruhilekoan.



9.- Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko Legea aldatzen duen Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Ikuskizun publikoak eta aisialdi-jarduerak arautzea ez da mugatu behar horien segurtasun-baldintzak ezartzera; izan ere, kontuan hartu behar da badaudela babesa behar duten beste interes publiko batzuk ere: osasun- eta higiene-bermeak, ingurumenaren eta ondasun kulturalaren babesa, elbarritasunen bat dutenak sartzea, ikuskizun publiko eta aisialdi-jardueren kalitatea sustatzea, atsedena hartzeko eskubidea edo hurrak eta gazteak babestea.

Horregatik, legea aldatzeak eguneratu eta hobetu nahi du egun indarrean dagoen araudia; horretarako, egun dauden lege-neurriak indartuko dira eta aipatu ikuskizun eta jarduerekin lotutako pertsona mota guztien eskubideak eta betebeharrak argituko dira. Ikusleak eta erabiltzaileak sartzeari gain, antolatzaileak, artistak edo jarduera horien zerbitzura dauden langileak ere sartuko dira, baita jarduerak gauzatuko diren tokitik hurbil bizi diren pertsonak ere, jardueren ondorio negatiboren bat jasan dezakete eta.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Ikuskizun eta jolas-jardueren katalogoan horien adierazpen garaikideren batzuk sartzea, egungo katalogoan jasota ez badaude; eta administrazio-eskumenen banaketa errealitate berri horiei egokitzea, udaletarako bokazio deszentralizatzailea ardatz nagusitzat hartuz, malgutasunez.
- Ikuskizunen Euskal Kontseiluan sartzea ikuskizun publiko eta jolas-jardueretan parte hartzen duten gizartearen sektore guztien ordezkariak.
- Zenbait lokaletan sarrera, edukiera eta zaintza-zerbitzuak kontrolatzeko sistemak eskatzeko aukerak aztertzea.
- Lurralde eta hirigintza plangintzen gaitasuna definitzea, establezimenduek eta publikoari irekita dauden guneek kokapen egokia eta irisgarritasun segurua dutela bermatzen duten zehaztapenak ezartzeko.
- Ikuskizun publiko, jolas-jarduera eta horien establezimenduen gaineko administrazio-kontrol araubidea malgutzea.
- Administrazioaren esku-hartzea ahalik eta gehien sinplifikatzea, ikuskizun publiko eta jolas-jarduera jakin batzuk baimentzeko, bereziki edukiera mugatua badute edo balio kulturala edo artistiko berezia badute.
- Ikuskapenen eta zehapenen erregimena egokitzea, eraginkorrakoak izango diren tipifikazio edo neurri zigortzaile berriak aurreikusiz, baita espedienteak ireki aurreko edo ireki eta berehalako izaerako behin-behineko neurriak arautzea ere.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Aisialdi eta ikuskizunetako enpresak



- Herri-administrazioak
- Herritarrak, oro har

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez da uste zuzeneko finantza-eraginik izango duenik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2012ko bigarren seihilekoan.



3. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

10.- Bizitza osoko ikaskuntzari buruzko Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Pertsonen gaitasun pertsonala, profesionala eta soziala areagotzea, eta, horretarako, bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko jarduerak sustatzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Ikaskuntza formalaren edo bestelakoaren bidez lortutako gaitasuna aitortzeko bideak eratzea.
- Bizitza osoan zehar iraungo duen orientazio pertsonala, soziala eta profesionala lortzea.
- Prestakuntza beharizan profesional, pertsonal eta sozialetara egokitzea, lan-merkatuaren eskakizunetan oinarrituta, eta, besteak beste, hauek izango ditu integratuta: hezkuntza-sistemak eskaintzen dituen prestakuntza-aukera desberdinak eta enplegurako lanbide-heziketako azpisistema.
- Gaitasunen aitorpena Europako estandarren araberakoa izanik, pertsona guztien mugikortasuna sustatzea Europaren esparruan.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren araberako hurrenkeran):

- Hezkuntzaren eta prestakuntzaren sektorea
- Enpresaburuen antolakundeak
- Sindikatuak
- Herri-administrazioak
- Herritarrak, oro har.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Legea aplikatzeko ezarri behar diren prozesuek sortutakoa.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko lehen hiruhilekoan.



4. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

11.- Baliabideak banatzeko eta Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko Metodologia, 2012-2016 eperakoa, onartzen duen Lege Proiektua

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunien eta lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko finantza-harremanen erreferentzia-markoa eguneratzea, Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren Legeko 41.2 artikulua e) idatz-zatia kontuan hartuta.

a.2.) Beste helburu batzuk:

Lege honen helburua izango da erabakitzea zer nolako metodologia erabiliko den Euskadiko Kontzertu Ekonomikoa kudeatzetik bildutako baliabideak EAEko erakunde publikoen artean banatzeko, 2012-2016 epean. Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak zehaztuko du aurretik metodologia hori zein izango den, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-erakundeen arteko harremanei buruzkoak bere 22. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Foru-aldundiak
- Herritarrak, oro har.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez da aurreikusten zuzeneko finantza-eraginik.

Indarrean sartzen denean, lege honek erabakiko du EAEko erakunde komunek eta gainerako euskal erakunde publikoek zenbat baliabide izango duten eskura.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko hirugarren hiruhilekoan.



12.-Euskal Estatistika Planaren (2010-2012) Lege Proiektua

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

- 2010-2012 aldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera antolatzea. Planaldia indarrean dagoen artean, Jaurlaritzako sailek, Estatistikarako Euskal Erakundea EUSTATEk, eta gainontzeko herri administrazioek, (Aldundi eta Udalek) gauzatu beharreko ekimen eta lan-ildo nagusiak dakartza planak.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Informazio ekonomikoa, edo demografikoa ala soziala eskatzen dituzten politika guztien esparru guztietan, herri administrazioei erabakiak hartzen laguntzea.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Herri Administrazioak
- Informazio estatistikoa eskatzen duten politika publikoak ematean tarteko diren gizarte-kolektiboak.
- Herritarrak, oro har.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

68 milioi euro, aurreko Planen ildoak eguneratuz gero.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko lehenengo hiruhilekoan.



13.- Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Legea aldatzeko Lege Proiektua

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Gaur egungo aurrekontu-araubidea aldatzea, zenbait gaitan; esaterako, aurrekontu-egonkortasunerako oinarriak eta urte-aniztasuna txertatzea, eta Legebiltzarrari eman beharreko informazioaren kalitatea areagotzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Aurrekontuen Legearen Proiektuko edukia egokitzea “sektore publikoaren” kontzeptu berriaren edukira (fundazio eta partzuergoak).

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

Antolaketari buruzko legea da funtsean, eta barne aplikaziokoa, baina Legebiltzarrarentzat eta gizartearentzat gardenago izatea nahi luke.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez dauka zuzeneko eraginik finantzetan.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko laugarren hiruhilekoa



14.- Aurrekontu Araubideari eta Kapital Partaidetza duten Erakundeen kontrolari buruzko Lege Proiektua.

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

EAEko Administrazioak Sozietate eta Fundazioetan duen gutxiengoko partaidetzaren aurrekontu-araubidea eta kontrol ekonomikoa arautzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erakunde horietan duen jarduera arautzea, eta hala badagokio, haietan duen partaidetza arautzea, baldintza zehatz batzuk betearaziz.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta, hala badagokio, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eskumenak areagotzea, partaidetza-erakundeen gaineko kontrolari dagokionez.
- EAEko Administrazioak gutxiengoko partaidetza duen erakundeetan aplikatzekoak izango diren ogasun-arauak ezartzea, gardentasuna eta partaidetza publikoaren kontrola areagotze aldera.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Beste Herri Administrazio batzuk
- Herri Kontuen Euskal Epaitegia
- EAEko Administrazioarekin batera Entitateetan parte hartzen duten sektore pribatuko erakundeak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez dauka zuzeneko finantza eraginik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko laugarren hiruhilekoan.



15.- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Lege Proiektua

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Indarrean den araudia eguneratzea, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen errealitate berrira egokitzeko.

a.2) Beste helburu batzuk:

- Inbertsioak kontrolatzeko bideak ezartzea, Ekonomia eta Ogasun Sailaren zaintzapean.
- Partaideen berme-bideak aurreikustea.
- Berme-funtsa arautzea.

a.3) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Foru Aldundiak
- BGAEren Euskal Federazioa
- BGAE
- Finantza-erakundeak
- Sindikatu-elkarteak
- Enpresa-organizazioak
- BGAEetako partaideak eta herritarrak oro har.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez da uste zuzeneko finantza-eraginik izango duenik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko bigarren seihilekoan.



16.- Lehiaren Euskal Agentziaren Lege Proiektua

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Euskadin lehiaren defentsan jarduten diren erakundeak bateratzea; “Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua” eta “Lehiaren Defentsarako Euskal Epaitegia”, biak, organismo batean bilduta.

a.2.) Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Ekonomia-eragileak
- Lehia askearen bidez arautzekoak diren merkatuetan jarduten diren enpresak
- Zenbait jarduera-sektorek, dituzten bereizgarrien arabera, gehiago jotzen dute jarduera oligopolitikoetara edo lehia murrizten duten jardueretara; horregatik, arreta berezia jarri behar da halakoak zaintzen.
- Herri Administrazioak
- Herritarrak, oro har

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez da uste zuzeneko finantza-eragina izango duenik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko lehenengo seihilekoan.



17. Aurrezki Kutxen Lege Proiektua

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Euskadiko Aurrezki-kutxen Legea aldatzea, fusioen araubideari eta partaidetza-kuoten murrizketei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenen barruan.

a.2.) Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Aurrezki-kutxak
- Foru Aldundiak
- Udalerrietako administrazioak
- Ezarleak
- Inbertitzaileak
- Langileak ordezkatzeko dituzten sindikatuak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez da uste zuzeneko finantza-eraginik izango duenik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2012ko bigarren seihilekoan.



18.- Finantzei buruzko Lege Proiektua

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Arauketa berriaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 20. artikulua aldatzea da.

Aipatutako artikulua mugak ezartzen ditu ekitaldi bakoitzean aurrekontua gauzatzeko edo aurrekontuak egiteko, baldin eta diruzaintzako soberakina negatiboa bada edo hurrengo ekitaldirako onartutako Aurrekontuan aurreikusitakoa baino txikiagoa.

a.2.) Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Antolaketa-legea da funtsean, eta barne-aplikaziokoa.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez du finantza-eragin zuzenik, gastuari dagokionez (aurrekontuak egiteko eta egikaritzeko malgutasun handiagoa ematen du, besterik ez).

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko lehen seihilekoan



19.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoen legearen testu bategina onesteko irailaren 11ko 1/2007 Dekretua aldatzeko Lege Proiektua.

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Indarrean dagoen testu bategina berraztertu eta eguneratzea, tasa batzuk kenduz edo moldatuz, arautegian izandako aldaketengatik, edo zerbitzuen edo jardueren aldaketengatik, eta horrez gain, tasa berriak eranstea, tasa horiek zer nolako kasuetan aplika daitezkeen aintzat hartuta.

a.2.) Beste helburu batzuk:

Aldaketa teknikoez gain, alderdi hauek ere aldatuko dira:

- Tasen aplikazio-eremua zehaztea,
- Aurrekontu Legearen bitartez tasak eguneratzea,
- Kopia arrunt bitarteko erreprodukzioa,
- Aldizkari ofiziala,
- Titulo akademikoak ematea,
- Aseguru Bitartekari Tituluduna-ren titulua ematea,
- Joku/Apustueterako baimena,
- Neurriara egindako osasun produktuak ekoizteko baimena,
- Hondakin arriskutsuen gaineko kontrola eta jarraipena,
- Europako etiketa ekologikoa.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Herritarrak oro har, tasak eta prezio publikoak ordain ditzaketan heinean; balizko subjektu pasiboak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Oraindik ez dugu aldaketak finantzetan izango duen eraginaren estimaziorik egin. Estimazio hori elaborazio-fasean zehaztuko da, baina edonola ere, eragina txikia edo urria izango da. Finantzaketa publiko guztien artean, kontzeptu horiek oso txikiak dira. Kontzeptu horien bitartez aurreikusten den zerga-bilketa ez da 50 milioi euro baino handiagoa; hots, Euskal Autonomia Erkidegoko diru-sarreraren aurrekontuaren % 0,5.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko lehen hiruhilekoan.



5.- JUSTIZIA ETA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

20.- Jaurlaritzako kideen eta Euskal Administrazio Publikoetako goi-kargudunen interes-gatazkak eta bateraezintasunen erregimena arautzeko Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Jaurlaritzako kideen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetako goi-kargudunen interes-gatazken eta bateraezintasunen erregimenaren erregulazioa ezartzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Eusko Jaurlaritzako kideak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko goi-karguak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Administrazioiko eta Euskal Sektore Publikoko gainerako entitateetako zuzendariak eta pareko karguak.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez dago zuzeneko eragin ekonomikorik. Hala ere, jarduerari uzteagatiko ordainsari eta kalte-ordainen araubide ekonomikoari eragin diezaioke. Ikerketa-fasean zehaztuko da eragin hori.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko bigarren hiruhilekoan.



21. Euskal Funtzio Publikoari buruzko Lege Proiektua

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua indarrean sartu ondoren, lege hori Euskal Autonomia Erkidegoan Funtzio Publikoari buruzko Lege berri baten bitartez garatzeko beharra sortu da.

Horrela bada, lege-proiektu honek euskal enplegu-sistema publikoa antolatzea eta arautzea du xede, lanpostuaren definizioa eta enplegu-sistema osatzen duen langileen araubide juridikoa oinarri hartuta.

a.2) Beste helburu batzuk:

- Lege hau zuzenean lotzen zaie funtzio publikoa arrazionalizatzeko eta modernizatzeko prozesuei. Eta, hortaz, enplegu publikoaren eredu berri bat eratzea izan behar dugu helburu, efizienteagoak eta herritarrengandik hurbilagoak diren administrazio publikoak sor ditzagun.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, Foru Administrazioko, eta Toki Administrazioko funtzionarioak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, Foru Administrazioko, eta Toki Administrazioko lan-kontratuko langileak eta behin-behineko langileak.
- Euskal administrazio publikoen zerbitzura diharduten bestelako langileak (Osakidetza, Ertzaintza...)
- Sindikatu-elkarteak
- Beste administrazio publiko batzuk.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Lege Proiektuak bere baitan hartuko ditu karrera profesionalaren sistema horizontala nahiz bertikala txertatzeko aukerak. Hartara, administrazio publikoek, hala erabakitzen badute, karrerako funtzionarioek eta lan-kontratuko langile finkoek beren lan-ibilbidean izan dituzten enpleguei lotutako postu, rol, jarduera eta esperientzien sekuentzia gisa definitu eta txertatu ahal izango dute karreraren kontzeptua; eta kontzeptu horrek, nola definitzen eta ezartzen den kontuan izanda, finantza-ondorioak izan ahal izango ditu, oraingoz zehaztu ez badira ere.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2012ko hirugarren hiruhilekoan.



22.- Euskal Autonomia Erkidegoko Publizitate eta Komunikazio Instituzionalari buruzko Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek sustaturiko edo kontrataturiko publizitate-eta komunikazio-kanpaina instituzionalen araubide juridikoa ezartzea.

Herri Erakundeek herritarrekin izan beharreko komunikazioan nagusi izan behar duen oinarrizko eta funtsezko printzipioa egiazko informazio objektiboa dela finkatzea; hots, informazio ordenatua, erakundeek zer nolako zerbitzuak eskaini eta zer jarduera garatzen duten ezagutzera emateko mezu arrunten zabalkunde orokorrera bideratua.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Erakundeetako publizitate eta komunikazioaren xedea zehazki finkatzea, eta haren garapeneko espazioa ezartzea. Edukiak eta zabaldu beharreko mezuak azaltzea, bai eta komunikazio horren eremu subjektiboa ere, eta zein subjektu publikori zuzentzen zaion definitzea.
- Publizitate instituzionaleko edukia arautuko duten baldintzak ezartzea, bai eta publizitate horrek bete beharko dituen debekuak ere, erakundeen leialtasuna zainduz.
- Gai horren inguruan egingo diren kontratuen esleipenean ardatz gisa hartu beharreko irizpide nagusiak ezartzea, bai eta hauteskunde garaian publizitatearen jarduera arautuko duten arauak ere.
- Publizitate eta komunikazio instituzionalaren egokitasuna zaintzea, berme-sistema bat ezarrita; horretarako, organo eta prozedura espezifikokoak sortu beharko dira, eta herritarrei legezko debekuen aurkako jarduerak bertan behera utzi edo zuzen daitezzen eskatzeko aukera eman beharko zaie, horretarako bidea zein den arautuz.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Publizitate-agentziak,
- Gizarte-hedabideak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez dago zuzeneko eragin ekonomikorik

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko lehenengo hiruhilekoan.



6. ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA.

23.- Euskadiko Etxebizitza Eskubidearen Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Etxebizitza-eskubidearen Legearen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoak etxebizitzaren arloan duen legegintza-eskumen eksklusiboa garatzea, eta hortaz, Konstituzioaren eta Estatutuaren arabera etxebizitza duina eta egokia izateko daukagun eskubidearen alderdi guztiak lege bidez arautzea, Konstituzioaren 47. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta eskubide hori eragingarria izan dadin behar diren neurriak eta arauak ezartzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatzen den arautzeak sektorearentzat duen garrantizaren araberrako hurrenkeran):

- herritarrak
- toki-administrazioak
- eraikuntza-sektorea
- finantza-sektorea
- kontsumitzaileak
- profesional independenteak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa) :

Legeak aurrekontuetan izango duen eragina lege-proiektuaren memoria ekonomikoan jasoko da eta guztiz lotuta egongo da lege-testuan ezartzen diren norainoko, eduki eta epeekin eta, hori hain aldakorra izanik, ezinezkoa da aurretik arrazoizko zenbatespena egitea. Dena den, bistakoa da legearen eragina nabarmena izango dela ekonomia, finantza eta aurrekontuei dagokienean.

Legearen helburuaren zati handi bat etxebizitzaren inguruko gizarte itun baten bidez adostu nahi da, eta ekimen hori dagoeneko martxan dago.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko laugarren hiruhilekoan.



24.-Mugikortasun Jasangarriaren Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Mugikortasun jasangarriaren Legearen helburua da bestelako garraio-eredu bat lortzea, eraginkorragoa, ingurumena errespetatuko duena eta, oro har, jasangarriagoa.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- dauzkagun baliabideak era zentzuzkoagoan erabiltzea, eta garraiobide kolektiboen eta ibilgailu motordun partikularren ordez ekologikoagoak izango diren garraiobideen erabilera bultzatzea.
- mugikortasuna planifikatu, ebaluatu, kudeatu eta mugikortasunean parte-hartzea bideratzeko tresnak sortzea .

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatzen den arautzeak sektorearentzat duen garrantizaren arabera hurrenkeran):

- herritarrak
- garraiolariak
- enpresak (langileentzat legearekin bat etorriko diren garraiobideak aurreikusi beharko baitituzte)
- herri-administrazioak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa) :

Ez da aurreikusten legea onartzeak finantza-eragin zuzenik izango duenik, ez baitago inolako erakunde edo ente berririk sortzeko asmorik edo eta zehapen-araubiderik eratzekorik. Gainera, ez dugu uste araua onartzeak EAEko Administrazioaren aldetik baliabide publikoak erabiltzea eskatuko duen inolako betebeharririk ekarriko duenik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko hirugarren hiruhilekoan.



25.- Trenbide-sektorearen Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Legearen helburua da trenbide-azpiegiturak nola planifikatu, eraiki, babestu eta administratu, eta EAEren eskumeneko trenbideetan garraio-zerbitzua nola eskaini arautzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatzen den arautzeak sektorearentzat duen garrantzaren arabera hurrenkeran):

- kontsumitzaile- eta erabiltzaile-elkarteak
- ETS
- Euskotren
- Bizkaiko Garraio Partzuergoa
- Metro Bilbao
- herritarrak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa) :

Finantza aldetik izango duen eragina legea aztertzeke fasean zehaztuko da.

Eragin finantzariarik izatekotan, arau-haustekak direla-eta aplikatu beharreko zehapen-araubidearen ondorio izango litzateke; zehapenez aparte, kontuan hartu beharko lirateke, azpiegituraren administratzaileak azpiegitura erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanonak, tren-enpresei emango litzaiekeen balizko beste lizentzia batzuegatiko eta segurtasun-ziurtagiriengatik tasak, trenetako langile izateko gaikuntza-agiria emateagatik, prestakuntza-zentroak homologatzeagatik eta material gurgildunen mantentzeagatik eta horiei buruzko ziurtagiriak egiteagatik kobratu beharrekoak.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko laugarren hiruhilekoan.



26.- Kable bidezko Garraioaren Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Lege honen helburua da kable bidezko garraiorako instalazioak eraiki, babestu eta ustiatzea, bai garraio publiko gisa erabiltzekoak direnak, bai pribatuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak badira.

a.2.) Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatzen den arautzeak sektorearentzat duen garrantizaren arabera hurrenkeran):

- kontsumitzaile- eta erabiltzaile-elkarteak
- kable bidezko garraio-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak
- toki-administrazioa
- herritarrak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa) :

Finantza aldetik izango duen eragina legea aztertzeke fasean zehaztuko da.

Eragin finantzariorik izatekotan, arau-hausteak direla-eta aplikatu beharreko zehapen-araubidearen ondorio izango litzateke; zehapenetatik eratorritakoez aparte, azpiegituraren administratzaileak azpiegitura erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanonak eta operadorei emango litzaiekeen balizko beste lizentzia batzuentzako tasak ere hartu beharko lirateke kontuan.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko bigarren hiruhilekoan.



27.- Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Legearen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko portuen jabari publikoaren kudeaketa arautzea, eta portu horien plangintza, eraikuntza, antolaketa eta ekonomia- eta finantza-erabileraren araubidea ezartzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- portu horietan portu-zerbitzuak eskaintzeko araubidea zehaztea, eta bai portuetarako sarbidea eta portuen erabilera ere.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatzen den arautzeak sektorearentzat duen garrantzaren arabera hurrenkeran):

- Gipuzkoako eta Bizkaiko merkataritza, industria eta itsasketako ganbarak
- kofradiak
- arrain-ekoizleen eta -merkatarien antolakundeak
- itsas-industrien elkarteak eta ontziolak
- elkargo profesionalak
- sindikatuak
- nautikako eskolak
- nautikako klubak
- erabiltzaileen federazioak
- herritarrak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa) :

Legearen aurreproiektua aurreko legegintzaldian izapidetu zen, eta izapidetze-prozesuan gerta zitezkeen aldaketei kalterik egin gabe, esan daiteke finantza-eraginaren aldetik haren memoria ekonomikoan jasotzen denak ez duela inolako gasturik eragiten ez eta aurrekontuz kanpoko baliabiderik eskatzen ere, eta aldiz, tasa eta tarifak direla-eta, diru-sarrerak eragiten dituela, 3.100.000 euro inguru.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko hirugarren hiruhilekoan.



7. INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legeari eta Turismoa Antolatzeko abenduaren 31ko 16/2008 Legeari dagokion aldaketa, zerbitzuen zuzentaraua aplikatzeagatikoa, zenbait lege aldatzen dituen Lege Proiektuan sartuta dago, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an emandako Barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko. (4. zenbakian identifikatuta dago).



8.ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

28.- Enpleguari buruzko Euskal Legearen Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politikaren helburuak eta printzipio gidariak zehaztea, enplegu erabatekoa, egonkorra eta kalitatekoa lortzeko. Eta enplegu-politikak sustatzeko eta garatzeko egiturak eta tresnak arautzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Gai horretan esku hartzen duten agente publikoen eta erakunde kolaboratzaileen eskumenak eta koordinazio-kasuak definitzea.
- Enplegu-agentzia pribatuak eta enplegu-zentro bereziak arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenen eremuan.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran)

- Langileak
- EAEn enplegua sustatzeko politikez arduratzen diren instituzioak.
- Enpresa-erakundeak.
- Elkarrekin sindikalak
- Enplegu-agentzia pribatuak
- Enplegu-zentro bereziak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez dago finantza-eraginik; izan ere, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eskumenak eskualdatzen direnean I., II. eta VI. kapituluak, pertsonak eta baliabide ekonomikoak besterentzen dira.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko bigarren seihilekoan.



29.- Partaidetza Instituzionalari buruzko Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

EAEko enpresa-erakunde eta erakunde sindikal garrantzitsuenen partaidetza instituzionala arautzea, eta partaidetza horri aplikatu beharreko diru-laguntza erregimena arautzea.

a.2. Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Enpresa-erakundeak.
- Elkarte sindikalak.
- Enpresa-erakundeek eta elkarte sindikalek parte hartzeko erakundeak.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Aztertze-fasean zehaztuko da; izan ere, gizarte-eragileen diru-laguntza erregimena negoziatu egin beharko da.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko hirugarren hiruhilekoan.



30.- Euskadiko Kooperatiben Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Euskal kooperatiba-mugimenduarekin bat etorriz, Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legearen aldaketa orokorra sustatzea, eta testu bakarrean integratzea sozietate kooperatiben arloan indarrean dauden lege-arau guztiak, arau-hausteen eta zehapenen erregimena barne.

a.2.) Beste helburu batzuk

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioan antolatutako euskal kooperatiben mugimendua. Konfederazio horretan Kooperatiben Federazio Sektorialak biltzen dira (Lan elkartua, Kontsumoa, Nekazaritza, Hezkuntza, Kreditua eta Garraiolariak).

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez dago eragin ekonomiko zuzenik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko bigarren seihilekoan.



31.- Etorkinak Hartzeko eta Integratzeko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Etorkinak hartzeko eta integratzeko eta kultura-aniztasunaren sozietatea kudeatzeko politikak antolatzea.

a.2.) Beste helburu batzuk

- Etorkinen harreran eta integrazioan ezezik, kultura arteko bizikidetzaren sustapenean ere inplikaturik dauden ekintza bideratuko duten printzipio komun batzuk finkatzea eta ezartzea.
- Euskal erakunde publikoen parte-hartzea antolatzea.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- EAEko herritar etorkinak
- Herritarrak, oro har
- Inmigrazioaren alorrean lan egiten duten erakunde eta gizarte-taldeak.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa)

Aurrekontuaren gehikuntza aurreikusi da: aurrekontuaren ohiko partidari 1,5 milioi euro gehituko zaizkio. Partida hori Immigrazio Zuzendaritzaren jarduera garatzeko izango da.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko bigarren seihilekoan.



32.- Transexualitateari buruzko Lege integralari buruzko Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Transexualen gizarte-eskubideak eta osasun-eskubideak bermatzea, eta Administrazio Publikoek transexualen aldeko tolerantzian, enpatian eta diskriminazio positiboan oinarritutako diskurtsoa eta jarrerak susta ditzaten bultzatzea, haiek gizartearen erabat txerta daitezen laguntzeko.

a.2) Beste helburu batzuk

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- EAEko herritar transexualak
- Osasun-, hezkuntza- eta enplegu-administrazioa
- Transexualitatearen eremuan lan egiten duten gizarte-taldeak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa)

Zuzeneko eragina txikia da, aipatzen ari garen kolektiboa txikia baita. Gastuen eragina txikia izango litzateke, eta osasun, hezkuntza eta enpleguaren alorrean eskumena duten Jaurlaritzako Sailen aurrekontuetan sartu behar litzateke.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko laugarren hiruhilekoan.



33.- Tabakoaren kontsumoari dagokionez, Droga-mendetasunaren inguruko prebentzioari, asistentziari eta gizarteratzeari buruzko 18/1998 Legea aldatzeko Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Tabakoaren inguruko gaiari buruz 18/1998 Legea egokitzea, Osasunaren Mundu Erakundeak eta Europar Batasunak osasun publikoaren babesaren arloan egindako eskakizunak betez.

a.2.) Beste helburu batzuk:

Ondoko eremuak arautzea:

- Tabakoaren kontsumoaren publizitatea eta sustapena mugatzea.
- Tabakoaren hornidura eta salmenta mugatzea.
- Tabakoaren kontsumoa mugatzea, hirugarren pertsonengan eragiten duenean — publikoarentzat irekita dauden leku itxietan eta adingabeak daudenean— .
- Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.
- Tabakismoa prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta tabakoa erretzeari uzten laguntzeko neurriak.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Herritarrak, oro har, eta bereziki, adingabeak.
- Eragindako enpresa-sektoreak.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Lege honen aldaketak ez du finantza-eraginik izan behar. Hala ere, zehapen-ardura bere gain hartuko duen erakundea —edo erakundeak— zein izango diren zehaztu behar da, eta baliteke horrek eraginen bat izatea aurrekontuetan.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko lehen seihilekoan.



34.- Droga-mendetasunei buruzko Lege integralaren Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Droga-mendetasunen alorreko euskal politika publikoa (droga-mendekotasunaren inguruko prebentzioari, asistentziari eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeak arautua) drogen kontsumo problematikoaren eredu berrietara, gizarte-errealitate berrietara, gaiari buruzko ikuspegietara eta araudi berrietara egokitzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Prebentzio-motak arautzea eta arriskuak eta kalteak murrizteko ikuspegiari heltzea.
- Legedi berria eta gizarte-zerbitzuen eta koordinazio soziosanitarioaren arloko garapenak kontuan hartzea.
- Sailen eta erakundeen erantzukizunak ezartzea, baita erakunde- eta partaidetza-arkitektura ere.
- Legeak baimenduta dauden eta baimenduta ez dauden substantzien (tabakoa, kanabisa, heroina) erabilerak (edo aipatutako substantziekin lotutako erabilerak) aipatuko ditu, baita arau-hausteak eta zehapenak ere.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Herritarrak, oro har
- Droga-mendetasunen eremuan lan egiten duten gizarte-taldeak.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez dago eragin ekonomiko zuzenik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko laugarren hiruhilekoa.



35.- Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea aldatzeko Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

I. kapitulutik, Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundeei buruzkoak diren 96, 97 eta 98. artikulua ezabatzea (izaera juridikoa, egitekoak eta antolaketa). Izan ere, artikulua horiek gainezari egiten zaizkie Arartekoaren Erakundearen zereginei eta Legeak berak beste administrazio publiko batzuei emandako zereginei.

a.2.) Beste helburu batzuk

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauaren garrantziaren arabera hurrenkera):

- Haur eta nerabeen babesaren eremuko gizarte-taldeak.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa)

Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundea ezabatzeak organo horri zuzenean eskaintako aurrekontu-partidak kentzea eta bere giza-baliabideak birbanatzea dakar.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2009ko laugarren hiruhilekoan.



9. OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

36.-Farmazia Sorospena Antolatzeko Lege Proiektua:

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legea onartu zenetik aurrera izan diren aldaketei (lege-, zientifikoak eta sozialak) egokitzea, zer eta sorospen farmazeutikoko establezimendu eta zerbitzuen araudia, herritarrek farmazia-sorospena eskuragarriago eta kalitate hobekoa izan dezaten.

a.2) Beste helburu batzuk:

- Herritarren eskubideak eta betebeharrak definitu eta farmazia-sorospena ematen duten establezimendu eta zerbitzu guztiek bete beharreko esparru orokor bat ezarri.
- Zerbitzu eta establezimenduen tipologia bakoitzari dagozkion alderdiak zehaztu: diseinua planifikatzea farmaziei, botikinei, lehen mailako arretako egitura sanitarioetako eta ospitaletako farmazia-sorospenari, zentro soziosanitarioetako farmazia-sorospenari, eta, hala behar bada, espetxeetako eta sendagaiak banatzeko biltegi-tako farmazia-sorospenari.
- Honako hauei buruzko alderdiak arautu: tratamendu farmakologikoei jarraipena egitea, beharrezkoa jotzen den jarduera delako; lan-prozedura normalizatuen arabera jardutea; sendagaien kalitate-, informazio-, sustapen- eta publizitate-eskakizunak sartzeko; bateraezintasunen araubidea; eta zehapenen araubidea.

a.3) Eragindako gizarte-sektoreak (proposatutako araudiaren garrantziaren arabera):

- Herritarrak, oro har.
- Farmazia-sorospena ematen duten establezimendu eta zerbitzuen titularrak.
- Farmazia-sorospena ematen duten establezimendu eta zerbitzuetan lan egiten duten profesionalak.
- Beste eragile batzuk (Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazialarien Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Kontseilua, farmazia-elkarteak, lanbide-elkargoak, albaitarien sektorea, Ehne eta Uaga, besteak beste).

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Legea indarrean sartzeak dakartzan eskakizun berriak betetzen direla zaintzeko, baliabide pertsonalak beharko dira, eta horrek eragina izango du aurrekontuetan.

Administrazioak aurrekontuetan izango duen eraginaz gain, nabarmentzekoa da farmazia-sorospena ematen duten establezimendu eta zerbitzuetan zenbait kalitate-tresna nahitaez sartzeko ekar liezaiekeela horien titularrei inbertsioak egin beharra edo gastuak gehitzea.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko lehen hiruhilekoan.



37.- Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Publikoari buruzko Lege Proiektua

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoan osasun publikoaren arloko jardunei, prestazioei eta zerbitzuei dagokien esparrua berrikustea; hartara, bermatu egingo da osasun publikoaren zaintza, norbanakoaren eta kolektibitatearen sustapena, gaixotasunen prebentzioa, animalien babesa eta elikagaien segurtasuna.

Berrikuspenak aurre egingo die osasun-arriskuen globalizazioak dakartzan erronkei, eta, orobat, prebentzio- eta kontrol-erantzunak emateko beharrei, erantzun horiek eraginkorrak, homogeenak, etikoak eta gardenak izan daitezen, eta herritarrei segurtasuna eta konfiantza eman diezaieten.

a.2) Beste helburu batzuk:

- Osasun publikoko zerbitzu guztiak integratzea, osasunaren zaintzakoei beste hauek gehituta: ingurumen-osasunekoak, elikagaien segurtasunekoak, osasun publikoaren zaintzakoak, gaixotasunen prebentziokoak eta osasunaren sustapenekoak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Publikoaren Agentzia sortzea.
- Osasun publikoaren arloko informazio-sistema bat sortzea; horretarako, osasun-informazioko sistemak integratzea eta horiek osasun publikoaren arloko zaintzara eta ekintzara, eta kudeaketara bideratzea.
- Osasun publikoaren arloan erantzukizuna duten administrazioak elkarlanean eta lankidetzan aritzeko tresnak eratzea, eta bakoitzak duen erantzukizun-eremua definitzea.
- Osasun publikoaren arloko prestazioak definitzea.

a.3) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako araudiaren garrantziaren arabera):

- Udalak
- Foru-aldundiak
- Elikagaien sektoreko, ingurumenaren sektoreko, nekazaritzaren sektoreko eta osasunaren sektoreko enpresaburuen elkarteak.
- Osasun-sistemaren erabiltzaile eta pazienteen elkarteak (batik bat, osasunaren sustapenari dagokionez)
- Hezkuntzaren sektorea
- Sindikatuak
- Herritarren elkarteak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Finantza-eragina 644.000 eurokoa izango dela jotzen da; kopuru hori osasun publikoko informazio-sistemak berregituratzera eta giza baliabideak berrantolatu eta prestatzera bideratuko da.

Osasun Publikoaren Agentziari dagokionez, finantza-eragina mugatua izango dela uste da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gaur egun dituen giza baliabideez eta baliabide materialez hornituko dela aurreikusten baita.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan :

2011ko bigarren seihilekoan.



10. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

38. Klima-aldaketa arintzeari eta hartara egokitzeari buruzko Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Klima-aldaketaren kontrako borroka: isurketak arintzea eta klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Euskal Autonomia Erkidegoan klima-aldaketari buruzko politikaren printzipio gidariak ezartzea.
- Europako Parlamentuak onartutako 20/20/20 Plana betetzen laguntzea: CO₂tik % 20 gutxiago isurtzea, energiaren % 20 gutxiago kontsumitzea, energia primarioaren % 20 iturri berriztagarrien bidez sortzea.
- Klima-aldaketaren eremuan eskumen-banaketa ezartzea EAEn.
- Klima Aldaketaren Euskal Bulegoaren funtzionamendua arautzea.
- Klima-aldaketa arintzeko ekintzak arautzea.
- Klima-aldaketara egokitzeko ekintzak arautzea.
- Kontrol- eta jarraipen-tresnak ezartzea.
- Partaidetza eta jendaurreko informazioa arautzea.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- EAeko sektore ekonomikoak, industria-sektorea bereziki.
- Administrazio publikoak: tokiko administrazioak eta Administrazio Orokorra (arloak: etxebizitza, garraioak, nekazaritza, ingurumena, industria, energia eta abar).

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Administrazio publikoetan: inbertsioak eta bestelako gastuak egingo dira, klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko betebeharreri erantzuteko. 2007ko abenduan, Jaurlaritzaren Kontseiluak Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana onartu zuen. Planarekin batera zetorren memoria ekonomikoan jasota zeuden Eusko Jaurlaritzako sailek, planean xedatutako ekintzak gauzatu ahal izateko, hartutako aurrekontu-konpromisoak; ekintza horiek orain legea onartzetik etor daitezkeen ekintzen antzekoak izan daitezke. Hain zuzen, honelaxe esaten zen memoria horretan: *2008-2012ko Klima Aldaketaren aurka egiteko Euskal Planean eragina duten guztizko baliabide publikoak*



652,5 milioi eurokoak dira; horietatik, 98,5 milioi euro baliabide berriak dira eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrei gehitu beharko zuzkie 2008ko ekitalditik aurrera.

Industria-sektore pribatua: inbertsioak egingo dira, legean ezarritako arintze-betebeharrei erantzun ahal izateko.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko lehen hiruhilekoan



39.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra aldatzeko Lege Proiektua.

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

3/1998 Legean sartzea Europar Batasunak eta Estatuko Administrazioak oinarrizko legeria legez onartu dituzten arau-testu batzuetako manuak, eragina izan baitute legeak araututako gaitan.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko arauak egokitzea.
- Ingurumenaren aldetik sentikorra den zonaren definizioa aldatzea.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Sektore pribatua (proiektuen sustatzaileak)
- Elkarteak eta erakunde pribatuak (ekologistak, kontsumitzaileak, enpresa-erakundeak eta abar).

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

EAEko Administrazio Orokorraren barneko kostuei dagokienez, legea aplikatzeak aurrekontuan izango duen eragin nagusia legean xedatutakoa gauzatzeko beharrezkoak diren langileen hornidura izango da.

Ingurumen-eraginaren ebaluazioari dagokion aldagetak ekar dezake, jardun jakin batzuen aurrean, egungo araudiaren arabera ingurumen-eraginaren ebaluazioaren prozedurapean jarri beharrik ez duen proiektu batek hala jarri behar izatea aldaketa hori egin ondoren; baina batekoz beste ere gertatuko da, eta, horrenbestez, eraginpeko sektore ekonomikoei oro har begiratuta esan daiteke arau berriak ez diela ekarriko kostu handiagorik.

Ingurumen-eraginaren ebaluazio estrategikoak eta, halaber, proiektu bakoitzaren ebaluazioak, nahiz eta hasierako tramitazioan kostu handiagoak ekarri erakunde sustatzaileentzat, gerora eragin ekonomiko positiboa sortuko dute botere publikoek izango duten jardueretan.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko laugarren hiruhilekoan.



40.- Paisaia Antolatzeko Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Paisaia plangintzan behar bezala integratu dadin sustatzea, eta paisaiarekin zerikusia duten beste politika sektorial batzuetan eragitea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Paisaia babestu eta kudeatzeari dagokion balioa aintzat hartzea.
- Paisaiak behar duen babes juridikoa antolatzea, eta aldi berean, paisaia behar bezala kudeatu, optimizatu eta hobetzeko behar diren tresnez hornitzea gure antolamendua.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Administrazio Publikoak
- Herritarrak
- Paisaia babestearekin lotura duten gizarte-taldeak.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Gerta liteke, legean arautzen diren tresnak (katalogoak, gidalerroak eta beste batzuk) egokitu edo eguneratu beharraren ondorioz, kostuak eragitea administrazio batzuei eta besteei, nahiz eta, gure ustez, ez duten kostu ekonomiko nabarmenik ekarriko.

Beste alde batetik, legea arauen bidez garatzeko orduan, laguntza ekonomiko motaren bat eratu ahal izango da, legearen beraren helburuak gauzatzen laguntzeko.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko laugarren hiruhilekoan.



41.- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legea aldatzeko Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Arau-hausteen sailean idatz-zati bat gehitzea, argi gera dadin arau-hausteak ez direla agortzen legeak dakarren zerrendan, eta, hala dagokionean, beste lege batzuetan tipifikatutako arau-hausteak egiteagatik ere ipin daitekeela zehapena (batik bat 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrenean; hor esaten denez, ekainaren 22ko 1945/1983 Errege Dekretua izango da aplikatu beharrekoa)

a.2.) Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Nekazaritza sektorea eta, bereziki, nekazaritzako elikagaien industriak.

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez dio gasturik gehituaraziko Administrazio Publikoari.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko lehen seihilekoan.



42.- Ehizari buruzko Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Ehiza arautzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

Lurraldea guneka banatzea ehizarako.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Ehiztariak
- Ehizarekin lotura duten gizarte-taldeak (ehiza elkarteak eta federazioak)
- Animalien defentsan diharduten gizarte-taldeak
- Landa-lurzoruaren jabe diren partikularrak
- Bestelako administrazioak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez du izango zuzeneko eragin ekonomikorik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko lehen seihilekoan.



43.- Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea aldatzeko Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Egungo legearen babesa hedatzea, izan ere, indarreko legeak etxeko abereak eta lagun egitekoak besterik ez ditu babesten, eta beste batzuk ere babestu nahi dira; hala nola, errenta eta produkzioko animaliak, zirkuetakoak, ikuskizunetakoak eta esperimentaziokoak.

Legez arautzea animalien ongizateak abeltzaintzako ustiategietan, garraioan, hiltegietan eta abarretan behar duen babesa.

a.2.) Beste helburu batzuk:

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arauketak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Abeltzaintza-sektorea, animalien garraioa, ikuskizunak, eta ikerketa, besteak beste
- Oro har, herritar guztiak, eta bereziki, animalien jabeak
- Beste administrazio publiko batzuk

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez du izango zuzeneko eragin ekonomikorik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2011ko lehen seihilekoan.



11. KULTURA SAILA

44.- Artxibo, Dokumentu eta Ondare Dokumentalaren Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Euskal Herriko Ondare Dokumentala, hau da, balio historikoa duten artxibo-funtsak, eta funts horiek kudeatzen dituzten zerbitzu publikoak kontserbatzeko, antolatzeko eta zabaltzeko lana arautzea. Horretaz gainera, artxibo horiek kontserbatzen dituzten titularitate pribatuko erakundeei laguntza ematea.

Artxibo Historiko Nazionala sortzea eta arautzea, eta Artxiboen Sistema Nazionala garatzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

Aurreproiektuak emaitza kulturalak lortu nahi ditu epe ertainean, artxibo sistema nazional arin eta eraginkor baten bidez eta Artxibo Historiko Nazionalaren webguneak emango duen eskaintza digitalaren garapen giltzarriaren bidez. Helburu nagusiak dira:

- Herritarrak jabetzea dokumentazio historikoa kontserbatzeak duen garrantziaz, bai eta oroimen kolektiboaren lekukotasun moduan duen balioaz ere
- Artxiboen erabilera suspertzea eta erabiltzaileen kopurua handitzea
- Artxiboak kultura-zentroen sareetan kokatzea, dokumentu historikoak bertatik bertara kontsultatzeko zerbitzu hutsetik harako zerbitzuak eskainiz.
- Trudi digitalaren bilgune handi bat sortzea (**Euskadiko Memoria Digitala**), web-zerbitzu moderno eta lehiakor baten bitartez beste zerbitzu dokumentalekin, hezkuntza-sareekin eta abarrekin sinergiak sortzeko gai izango dena.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Administrazio publikoetako profesionalak, zeren artxibo-funtsen titular nagusiak eta beren artxibo-sistemen kudeatzaile baitira..
- Artxibo eta dokumentuen titularrak: partikularrak, bereziki, familiak, fundazioak, erakunde politiko eta sindikalak, edonolako elkarteak, Eliza Katolikoa
- Gizartea, oro har, herritarrei bermatzen baitzaie beren oroimen pertsonala, familiarena eta soziala osatzen duen balio historikoko dokumentaziorako sarbide librea

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Aurrez ikusitako finantza eragina 2.449.000 eurokoa da, pertsonal-gastuak eta gainerako gastu ohikoak barne hartuta.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko bigarren hiruhilekoan.



45.- Sailkatutako Kultura Ondasunaren Deklarazioaren Lege Proiektua (ondasun mota, era edo klase baten alde)

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Helburu nagusia balio handiko era, mota edo kalse bateko ondasun multzo bat babestea da, eta bai Kultura Ondasunen Erregistroan inskribatzea ere

Euskal kultura onndareko ondasunak sailkatzea azkertzea, hartarako, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 4ko Legeko 10.3 artikuluan ezarritako mekanismoak baliatuaz.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Behin sailkatutako kultura-ondasunak deklaratu gero eta babes-araudi generikoa ezarri ondoren, egin beharreko lanek tokian tokiko foru aldundiaren baimena beharko dute, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritakoarekin bat.
- Ondasun hauen jabe edo/eta titularrek, monumentu-deklarazioari esker, tokian tokiko foru aldundiek sailkatutako kultura-ondasunak kontserbatzeko, hobetzeko eta zaharberritzeko deitzen dituzten laguntza-programetan parte hartzeko aukera izango dute.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Babestutako ondasunen jabe edo/eta titularrak
- Foru Aldundiak eta udalak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez du finantza-eraginik

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko laugarren hiruhilekoan.



46. Uztailaren 3ko 7/1990 Legea, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa, aldatzeko Lege Proiektua.

a.1) Arautzearen helburu nagusia:

1990eko Legea egungo kulturaren eta hirigintzaren errealitatera egokitzea.

a.2) Beste helburu batzuk:

- Kultura-ondarean esku hartzeko irizpideak zehaztea.
- Kultura-ondarea sailkatzeko kategoriak ugaritzea.
- Arau-testua eguneratzea, kultura-ondarean eragina duten beste lege batzuk kontuan izanda.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Babestutako ondasunen titularrak diren pertsonak.
- Foru-aldundiak
- Udalak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Ez da uste zuzeneko finantza-eraginik izango duenik.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2012ko bigarren seihilekoan.



47.- Gazteriari buruzko Euskal Legearen Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Gazte-politika integrala bultzatzeari buruz herri-administrazioei egotzi zaizkien eskumenak eta eginkizunak arautzea.

a.2.) Beste helburu batzuk:

- Gazteen emantzipazioa erraztea, zeharkako politikak eta sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa sendotuta.
- Berariaz gaztetasuna sustatzera bideratuta dauden zerbitzu eta ekipamenduetan gutxienezko kalitate-baldintzak bermatzea.
- Euskadiko gazteek parte hartzeko eta solaskide izateko bideak zabaltzea, bide egonkorrak sortuz eta, era berean, bide horietan elkarreentzako gazteak eta elkarreentzako kanpoko gazteak aintzat hartuz.
- Legeak Euskadiko Gazteria Institutu bat sortzea aurreikusten du, helburua Eusko Jaurlaritzako gazte-politika planifikatzea, koordinatzea, kudeatzea eta gauzatzea izango duena, izan ere, eginkizun horiek egun Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzari dagozkio-eta.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- 14 urtetik 30era bitarteko pertsonak (adin-tarte hori baitago onartua Europar gazteriaren gaineko politikari dagokienez)
 - Gazteriaren arloan inplikaturako kolektibo sozialak
 - Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
 - Herri-administrazioak

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Euskadiko Gazteria Institutuak bere gain hartuko lituzke gaur egun Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzari dagozkion langileak eta eskumenak. Zuzendaritza horrentzako 2010erako aurreikusitako aurrekontua 5.658.740 eurokoa da. Euskadiko Gazteria Institutuaren zerbitzuen kostua 1,2 milioi euro urteko inguru jotzen da, 20 laguneko taldea izanik kalkulaturik. Kostu hori nabarmen aldatuko litzateke Institutuarentzako ekipamendu espezifiko bat sortzea erabakiko balitz.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko bigarren lauhilekoa.



48.- Euskadiko Dopajearen aurkako Lege Proiektua

a.1.) Arautzearen helburu nagusia:

Euskadiko dopajeari aurre egin eta kontrolatzeari dagokionez, 14/1998 Legean ezarritako xedapenak errealitateari egokitzea; hala, eraginkortasunez aurre eginez dopajeari.

a.2) Beste helburu batzuk

- Euskadiko ordenamendu juridikoan dopajearen definizioa izatea.
- Aplikazio orokorrerako eremu subjektiboa definitzea, hain justu ere federazio-lizentzia izanik (unibertsitatetako edo eskolako) Euskadiko kirol lehietan parte har dezaketen kirolariengana hedatuz eremu hura, eta bai Euskadin lehiatu edo entrenatzen dutenengana eta bai ondokoengana ere: pertsona fisiko edo juridiko izanik, aipatu lizentzietariko bat izan edo Euskadin kirol jarduna egiten dutenengana, lehia ofizialak diren al ez kontuan hartu gabe.
- Dopajearen aurkako Euskal Agentzia sortzea, bereizteko, batetik, kirola sustatzeko funtzioak (goi-mailakoa zein bestelako lehiaketako kirol-agerpenak) eta, bestetik, dopajearen aurkako kontrol-lana.

a.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak (proposatutako arautzeak sektorearentzat duen garrantziaren arabera hurrenkeran):

- Kirolariak
- Klubak
- Kirol-federazioak
- Herri-administrazioak
- Herritarrak oro har

b) Finantza-eragina (gutxi gorabeherakoa):

Dopajearen Aurkako Euskal Agentzia eratzeke oso antolakuntza-modu xumea erabili da: kide bakarreko organo bat, Zuzendaria, eta kide anitzeko beste organo bat (Aholku Batzordea) behar bezalako tamaina duena.

Bestalde, gogoan izan behar da kredituak sortu ere sortu daitezkeela, zehapen-ahalmen administratiboaren indarrez zigor ekonomikoak ezartzearen ondorioz sorturiko diru-bilketa dela eta.

c) Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

2010eko laugarren hiruhilekoan